



Zurekin.
Aurrera egiteko.

Zurekin



2025



“Martxan dagoen herria da Aia”



Bi urte pasa dira alkate makila hartu zenuenetik. Zer moduz moldatu zara lan berrian?

Hasieran, egoera pertsonalean ez zen oso erraza izan. Hala ere, ilusio handiz ekin genion lanari, oso talde ona daukat, sendoa eta konprometitua eta denon laguntzarekin aurrera egin genuen. Proiektu handiak jarri genituen martxan, zenbait arazori irtenbidea eman, eta poliki-poliki gauzak aurrera ateratzen joan dira. Herritarren eskertza eta babesa jaso dugu bidean, eta horrek indarra ematen digu lanean jarraitzeko: hasitako proiektuak bukatu eta berriak abian jartzeko gogoz gaude.

Erronka handiak ditu Aiak; zeintzuk dira zure ustez garrantzitsuenak, eta zer egiten ari da udala horiei aurre egiteko?

Gure jardueraren ardatz nagusietako bat etxebizitza eta hirigintzari lotutako

gaiak izan dira. Hori dela eta, hirigintzako araudia eguneratzen hasi ginen, herritarrek adierazitako beharrak eta udalak identifikatutakoak kontuan hartuta, egungo errealitatera egokitzeko.

Bereziki gazteentzako etxebizitzaren premia azpimarragarria da, eta horri erantzuteko bi eraikin erosi ditugu:

Herriguneko erretore etxea eta Arrazubi Berriko etxea, Santio Erreka auzoan. Biak gazteei bizitoki gisa eskaintzeko izango dira.

Beste erronketako bat, eskola aldamenean eraikiko den kirol gunea dugu. Aspalditik genekien Aiak gimnasio bat behar zuela. Horretarako, parte-hartze prozesu bat jarri genuen martxan eta kirolean adituak diren hainbat herritarrek, bere iritzia eman dute. Beraz aipatutako terrenoa erabiliko dugu, Aiak merezi duen kirol gune berria egiteko.

“Elkarlana da gure herria ulertzeko modua”

Auzoetan ere lanean jarraitzen dugu, batzuk aipatzearren: Altzolako bideari beharrezko konponketak eta hobekuntzak egin, Elkanoko frontoi aurrean haur parke berria instalatu eta eliza aurea asfaltatu, Andatzako frontoian konponketa lanak egin eta auzoko argiteria aldatu...

2024ko udal aurrekontua aurkako bozkarik gabe eta 2025ekoa aho batez izan zen onartua.

Elkarlanean oinarritutako politikaren ondorioa al da?

Elkarlana da gure herria ulertzeko modua. Hasieratik argi izan dugu beste alderdiak ere Gobernu Batzordean egon behar zutela, eta herria elkarrekin eraikitzen dela. Gure lan egiteko modua konfiantzan oinarritzen da, eta konfiantza hori mantentzen den bitartean, bide horretatik jarraituko dugu. Nabarmendu nahi dut hiru mahai sektorial sortu ditugula, hainbat gairi merezi duten arreta emateko eta haien inguruko lanketa sakontzen jarraitzeko. Azken finean, aurrekontuen onarpena ere konfiantzan oinarritutako elkarlan horren fruitua izan da.

Hauteskunde programan finkatutako helburuak legealdi honetan betetzeko gai izango da udala?

Kanpaina geure buruari jarri genizkion helburu eta eginkizunak ez ziren gure burutik bakarrik sortu; herrian zeuden beharrak ziren, eta askok lehenasunez-kotzat jotzen genituen. Horietako gehienak jada martxan daude. Egia da proiektu batzuk ez dutela amaiera zehatzik, etengabeko lana eskatzen dutenak direlako, baina guztiek badute norabide eta dinamika bat. Esan

dezaket egitasmo guztiak bidean daudela dagoeneko, eta askoren kasuan, ziur nago beteko ditugula. Gainerakoetan, lanean jarraituko dugu, herritarren beharrak erdigunean jarriz.

Aia ez da lo dagoen herria; zenbatu al duzue zenbat ekitaldi egiten den urtean zehar? nola lortzen duzue herritarren parte-hartzea?

Kanpaina argi adierazi genuen Aiaren aldeko lana izango zela gure konpromisua eta gaur egun ere, argi daukagu lan hori ez dela momentukoa, baizik eta jarraipena behar duela etenik gabe. Aia ez dugu lo dagoen herri gisa imajinatzen, baizik eta herri bizia izaten jarraitzea da gure helburua, eta horretan dihardugu.

Hainbeste jarduera eta ekitaldi antolatzen ditugunez, egun batean kontatzen hasi ginen, eta konturatu ginen Aian, batz bestea, hiru egunetik behin zerbait egiten dela. Eta hori ez da nolanahikoa, kontuan hartuta Aia herri txikia dela, zabala bai, baina biztanle kopuruz txikia.

Nola lortzen da hori? Udaletik bakarrik ezinezkoa litzateke. Horregatik, herritarren eta elkarten inplikazioa funtsezkoa da: Aristerrazuko Erromeria elkarteak, herri eta auzoetako jai batzordeak, eta beste hainbeste eragilek egiten dute hau posible. Udalak, bere aldetik, batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, modu batean edo bestean, laguntzen du. Eta horrela eraikitzen da herri bat: elkarlanarekin eta konpromisoarekin. Hainbeste kontzertu, ekitaldi eta azoka herritarren borondatezko lanari esker dira posible, eta guk, udal bezala, horien ondoan egon nahi dugu. Gure helburua argia da: **Aia herri bizia izatea.**

Bi urte hauetan zer egin dugu?

→ Herriko zerbitzu eta azpiegiturak

**Anbulategiko eguneroko mediku
eta erizain zerbitzua bermatu eta
egonkortzeko gestioak.**

Udalaz gaindiko zerbitzuak bermatzeko
gure esku dagoen guztia egiten ari gara
eta pozgarria da guztien artean medikua
eta erizaina egonkortzea lortu izana.



**Zazpi desfibriladore
instalatu ditugu.**

Herriguneko ambulategian eta farmazian,
Etxeta bailara eta Iruretaegiako
buzoietan, Andatza auzoko eskola
etxean, Santio Erreka auzoko frontoi
atzean, Elkano auzoko elkartearen
ondoan eta Urdaneta auzoko
eskola etxean.



**Sendagaien erabilera zuzena
errazteko programarekin
bat egin du udalak.**

Herriko farmazia etxez etxeko
laguntzailearekin edo zaintzailearekin
arituko da elkarlanean, botikak
jaso, gorde eta nola eman
behar diren antolatzeke.




**Kaleak garbitu ditugu guztion
segurtasunerako.**

Denborarekin zorua zikindu, ilundu
eta irristakorra bihurtzen da.
Kaleak garbiak mantentzeaz gain,
segurtasuna ere hobetu dugu.

**Herriguneko pasealeku
irisgarrian, Andatzako auzoan
eta Laurgaingo auzoan argiteriak
berritu ditugu.**





IGERILEKU GUNEA BERRITU.


Taberna-jatetxea eta aldagelen eraikin berria eta eguzkia hartzeko gune irisgarria eraiki ditugu.

Jasangarriagoa: aerotermiaz berotzen da ura.

Irisgarriagoa: taberna-jatetxea, aldagela eta eguzkia hartzeko gunea irisgarriak dira. Igerileku handira sartzeko irisgarritasuna ere asko hobetu dugu instalatu dugun eskailerari esker.

Babes handiagoa eta erosoagoa: jatetxeko terrazan pergola berria jarri dugu.

Hamakak jasotzeko gordelekua jarri dugu.



Jauregi taberna-jatetxea.

Beharrezko inbertsioak egin ditugu ireki eta martxan jartzeko.



Elkarbizitza hobetzeko txakur

eremu berriak egin ditugu kaskoan eta Andatza auzoan.



Bi urte hauetan zer egin dugu?

→ Etxebizitzak

Arrazubi Berri eta erretore etxea erosi ditugu etxebizitza beharrei erantzuna emateko.

Arrazubi Berriko etxea eraitsi eta bost etxebizitza izango dituen eraikin berria egingo dugu.

Erretore etxea aldiz hainbat etxebizitza sortzeko eraberrituko dugu.



→ Hirigintza

Hirigintza plangintza gaur eguneko beharretara egokitzen ari gara.

Hirigintza mailan egin nahi ditugun aldaketa puntualei buruz informazioa zabaltzeko bilerak irekia egin genuen Kultur Etxean.




→ Auzoak

Auzoetako elkarteekin eta auzokideekin behar dituzten inbertsioak egiten jarraitu dugu eta kirol eta aisialdi ekintzetan bidelagun izan gara.

- Altzolako bideari beharrezko konponketa eta hobekuntzak egin.
- Elkanoko frontoi aurrean haur parke berria instalatu eta asfaltatze lanak burutu.
- Andatzako frontoian konponketa lanak egin eta auzoko argiteria aldatu. Olaberria aldeko bideak egokitu.
- Laurgaineko bidea asfaltatu, auzoan beharrezko konponketak egin eta argiteri berria instalatu.
- Santio Erreka auzoan uholdeak ekiditeko garbiketa lan sakona egin.
- Urdanetako eskola-etxeko lanak bukatu.
- Arratolan trafikoa mantsotzeko moldaketak egin ditugu.





→ Landa eremua

Baserri bideen konponketak eta mantentze lanak.

2023 -2025 bitartean **450.666,50 €** inbertitu ditugu hainbat kilometro baserri bideren konponketa eta hobekuntzak egin ahal izateko.

Landa lurren digitalizazioa.

477 jabek hartu dute parte digitalizazioan.

Udara ondoren emango diogu amaiera 3. faseari eta 4. eta azken faseari urte bukaeran emango diogu hasiera.

LUR Kooperatiba ekonomikoki jasangarriagoa egin dugu.

Alde batetik eguzki plakak instalatu ditugu energia gastua murrizteko.

Bestetik, BM enpresarekin adostutako kontratu berriak irabaziak haunditu ditu.



→ Natur parkea

Sutarako egurra herritarren eskura jarri dugu.

Aiako udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Pagoeta Natura Parkeetik ateratako 140 tona egur banatu ditu hainbat etxeetan.

Erbi Europarra birpopulatzeko lanak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aiako Udalak, Larra-Txori Ehiza Elkartarekin elkarlanean, Erbi Europarra birpopulatzeko hainbat askaketa eta erbientzako egokitze itxitura jarri dute.



→ Euskara

Gipuzkoako Foru Aldundiak Aia aukeratu du ARIGUNE proiektu pilotuan parte hartzeko.

Aldundiarekin elkarlanean euskara hauspotzeko helburuz sortutako proiektuan lanean ari dira Aiarrak udalaren laguntzarekin.

Bi urte hauetan zer egin dugu?

→ **Kirola guztientzat**

Herritarrekin batera diseinatu dugu kirol ekipamendu berria prozesu parte-hartzaile batean.

Prometea aholkulari enpresa izan da parte-hartze prozesuaren gidaria eta udaleko alderdi guztien oniritzia jaso du. 25 herritarrek hartu dute parte aurreproiektuaren diseinuan.



Udal pilotalekuen mantentze-lanak egin ditugu.

Herriguneko pilotalekuaren kolore berria herritarrek erabaki dute bozka bidez.

Auzoetako pilotalekuetan ere mantentze-lanak egin ditugu.



→ **Jasangarritasuna**

Energia aholkularitza zerbitzua doan jarri dugu herriko familientzat.

Energia era jasangarriagoan erabiltzeko aholkuez gain, hileko faktura ere murriztea lortu dute familia askok.

EKIAIA energia kooperatiba sortu dugu.

Aiako Udala, Aia Lantzen eta Lur Alkartasuna Kooperatibaren artean EKIAIA energia komunitatea sortu dugu. Kooperatibarentzat hainbat eguzki panel jarri ditugu eta orain bertan sortutako energiaz hornitzen da BM denda.


Eguzki panelak instalatu ditugu udaletxeko, Kultur Etxeko eta eskolako teilatuetan.

Hauei esker udaletxeak, Kultur Etxeak eta eskolak behar duten argi indarraren parte handi bat bertan sortzen dugu.

Kultur Etxean aerotermia berokuntza sistema jarri dugu.

Kultur Etxeko berokuntza sistema jasangarria da orain sistema honi esker.





→ Kultura

AIA PROBALEKUA. Elkarlana, herrigintza eta kultura.

- Kulturaz gozatzen duen herria, herri bizia da, zalantzarik gabe. Bide onetik doa Probalekua eta euskal kulturari behar duen tokia ematen jarraituko du gure aretoak.
- Azpiegituretan beharrezko egokitzapenak egiten jarraituko dugu.
- Datozen denboraldiak ere kalitatezko emanaldiez osatzeko lanean ari gara.
- 2025. urtekoa **6. denboraldia** da. **40 emanaldi** eskeini ditugu. **9.500 ikusle** izan ditugu.



"SENDABELARRAK Aiarren ondare inmateriala"

Aharoa Zuloaga Aiarrak idatzitako liburua argitaratu dugu.



→ Memoria historikoa

GABINO ALUSTIZA plaza.

EAJ-ko alkate zenaren omenez plaza, eskultura eta ikurrina inauguratu ditugu.

GABINO ALUSTIZA beka.

Aiako historia, ondarea eta kultura ikertzeko "Gabino Alustiza" bekaren lehen edizioa jarri dugu martxan.



Bi urte hauetan zer egin dugu?

→ Turismoa

Kalitatezko turismo eskaintza webgunean eta sare sozialetan.



- **aiaturismoa.eus** webgunea eguneratu eta hobekuntzak egin.
- Sare sozialetarako edukia sortu eta herriko aisialdi eta kultura ekitaldien promozioa egin.
- Herriko turismo aisialdi-planoa eguneratu eta inprimatu.
- Jauregi jatetxea irekita eta martxan mantentzeko hobekuntzak burutu.


Gure nortasuna eta kultura balioan jarri ditugu bisitariak erakartzeko.

- Probalekuko kultur egitasmoa bertako sortzaileen erakusleiho bihurtu dugu eta momentu honetan euskal aretoen artean gure lekutxo egin dugula esan genezake.
- Aiako Trikiti jaialdia sortu dugu.

Ekitaldi berriak sortu eta lehengoak indartu.

- Gabonetako azoka berezia sortu eta jarraipena eman diogu.
- Galdu genuen Asentzio feriaren ideia berpiztu eta **Idi Eguna** sortu eta jarraipena eman diogu.
- Herri Kirol Federazioarekin hitzarmena sinatu dugu auzoetako jai batzordeei dirua aurrezteko eta ekitaldi gehiago ekartzeko.
- Aristerrazuko erromeriari azpiegitura hobetuko diogu eta inguruko enprekin hitzarmenak sinatu ditugu jaialdi egunetan aparkalekuak irekita utz ditzaten.
- Auzoetako kirol eta kultur ekintzen bidelagun izan gara.
- Herritarren eta udalaren ekinez, **122 ekitaldi** antolatzen ditugu urtean zehar.
- **2,9 egunetik behin** antolatzen da ekitaldiren bat Aian.






Aia, mila urteko herria.

Aurten 1.000 urte bete dira Aiaren eta Elkano auzoaren lehen aipamen idatzia egin zenetik. Hori ospatzeko hainbat ekimen jarri ditugu martxan:

- Jatorrizko aipamenaren grafia erabiliz urteurrenaren irudia sortu dugu.
- Poltsa berrerabilgarriak egin ditugu herriko ekimenetan erabiltzeko.
- Herriguneko bisita gidatua eta Escape Street berezia sortzen ari gara gure herriaren historia ardatz hartuta.



haya·Aia

**1025 2025
MILA URTEKO
HERRIA**

→ Berdintasuna

Lehengo, oraingo eta etorkizuneko Aiako emakumeei OROITZA, AITORTZA eta ESPERANTZA.

Aiako emakumeen omenez, herriguneko pilotalekuaren paretean mural erraldoia egin du **Udatxok**.



→ Herri bizia gara

Herri bizi eta aktiboa izaten jarraitu nahi dugu...

Arbasoengandik jaso genuena ahaztu gabe, errealitate berrietara egokituz, bizikidetzan oinarrituta, komunitate sentimentu batekin, eta elkarlanean bizi nahi dugu... **datozen mila urteetan ere.**



www.gipuzko.eus/eu/aia/

  [jonanderazpirozotegi](#)

